



EX-HUSBANDS (SENAR OHIAK) • AEB

Noah Pritzker (zuzendaria, gidoigilea)
Griffin Dunne, James Norton, Miles Heizer (aktoreak)
Alexandra Byer, Nicolas Celis, Bruce Cohen (ekoizleak)

Dibortzioa inspirazioaren iturri

SERGIO BASURKO

Banantzeek familietan duten eraginarene gaineko hausnarketa egiten du Noah Pritzkerrek Sail Ofizialeko lehiaketan aurkeztu duen *Ex-husbands* filmean. Maskulinitate forma berriak eta zahartzaroaren onarpena ere bada komedia ukitua duen pelikula honek aztertzen dituen gaietako batzuk.

Estatu Batuetako mendebaldeko kostaldean jaio eta hazi zen Noah Pritzker zinema zuzendaria, familia "aurrerakoi" batean. "Gurekin irekiak izan nahi zuten, sexu-praktika osasuntsuez hitz egiten ziguten... deserosotasun horiek guztiak alde batera utzi genituen", ekarri du gogora bere bigarren film luzearen aurkezpenean.

Bere gurasoen banantzean oinarrituta idatzi zuen filmeko gidoia eta, izenburuak iradokitzen duen gisa, euren emazteengandik banandu diren hiru gizon ditu protagonista filmak; horien sentipen eta bizipenen bidez familietan banantzeek sortzen dituzten tentsio eta gogoetak aztertu nahi izan ditu zuzendari estatubatuarak. "Bikoteek eta familiekin izaten duten bilakaerari buruz hitz egin nahi nuen, baita seme-alabekin gertatzen denaz ere", zehaztu du.

Peter da filmeko protagonista. Bere gurasoek 65 urte elkarrekin igaro ondoren harremana bertan behera uztea erabaki zuten, eta antzeko egoeran dago orain bera, 35 urteren ostean emazteak utzi egin baitu. Egoera berean dauden hiru gizonen bizipen eta emozioak harilkatuz osatu du komedia kutsua duen filma Pritzkerrek, eta "maskulinitate berriak" ere hartu nahi izan ditu kontuan.

"Badaude garaipen uneak, aita izatea adibidez, dena dago iraganeko motxila horretan eta maila emozionalean gauza asko askatzen dituzu



Miles Heizer, Griffin Dunne eta James Norton antzezleak zutik, Noah Pritzker zuzendaria alboan eserita dutela.

ALEX ABRIL

A beautiful nuanced take on masculinity

Along with several members of the cast, director and scriptwriter Noah Pritzker presented his second feature *Ex-husbands* yesterday at the Kursaal, a tender portrait of a man in his 60s who in the middle of a traumatic divorce decides to reinvent himself by crashing his son's bachelor party in Tulum.

Asked about whether they were nervous about promoting the film

while the actors' and scriptwriters' strike was still running, Griffin Dunne, who plays the father in the film, stressed they wouldn't have come without having received the blessing of their union, as this is a small independent film without distribution, and that they were thrilled to be here.

As for whether art imitated life in the film, Dunne said that: "I live off my luggage. Your past is what you

draw from. The strongest tool an actor has is their past."

The producer, Bruce Cohen, said that they had created a "beautiful nuanced take on masculinity from a lot of different angles" while Dunne confessed that finding a role as a central figure like this at his age was a real delight. Pritzker added that the more time he spent with Dunne the more he knew that he was just right for the role.

aurrera egin ahal izateko. Maskulinitate forma asko ageri dira film honetan, aita-semeen arteko harremanean...", azaldu du zuzendariak.

Sekuentzia jakin bat izan du hizpide, non James Nortonen pertsonaia (Nick) ageri den negarrez, emazteak harremanaren etetea baieztatzen diotenean. Nortonek aitortu du 40 aldiz filmatu zutela eszena hura: "Nick-entzat bere bikotea bere bizitzaren parte garrantzitsu bat da eta batetik bestera alderrai dabil bikoteak alde egiten duenean. Bizitzan dituzun espektatibek huts egiten dute askotan. Agur esan behar diotenean negarrez ageri da, 40 aldiz filmatu genuen eszena hura eta Noah-k hautatu duen hartunek erakusten du zein sotila den film hau".

Zahartzaroa ere bada filmeko gai nagusietako bat: "Peter banandu egiten da, bere semeak independenteak dira eta bizitza eta nortasun berria eraiki behar ditu. Bakarrik gelditu da", azaldu du zuzendariak, eta horri nola aurre egiten dion ere aztertu nahi izan du filmean.

Aurkezpenean, AEBetako antzezle eta gidoilarien greba ere izan dute hizpide. "Gure antzezleak hemen daude film txiki independentea delako", arrazoitu du zuzendariak, eta balioan jarri du grebaren amaierak "mundu guztiak lanera itzuli ahal izatea" ekarriko lukeela, "hori baita denok nahi duguna". Iritzi berekoa da bere sindikatuari Donostiara etortzeko baimena eskatu behar izan dion Griffin Dunne antzezlea ere: "Eskatzen duguna lortu dugula, hori esan nahiko luke greba amaitzeak. Gogorra izaten ari da, batez ere antzezle gazteentzat, telesail batetik bestera dabilzanentzat, baina baita teknikarientzat eta zinema-industriako arlo guztientzat ere", adierazi du.

ZINEMAREN HIRU ALDIEN ESKOLA

Ikerkuntza, gogoeta eta esperimentazio zinatografikorako nazioarteko zentroa. Hiru master ikasketak:

- 01 Artxiboa
- 02 Komisariatza
- 03 Sorkuntza

LA ESCUELA DE LOS TRES TIEMPOS DEL CINE

Centro internacional para la investigación, el pensamiento y la experimentación cinematográfica. Tres estudios de máster:

- 01 Archivo
- 02 Comisariado
- 03 Creación

THE SCHOOL OF THE THREE TENSES OF CINEMA

International centre for research, thought, and film experimentation. Three master studies:

- 01 Film preservation
- 02 Film curating
- 03 Filmmaking